

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Biodibertsitatea  
bizia da

Lehenengo astelehenean, ekainaren 5ean, mundu mailan, Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatu zen. Egun hau 1972an Nazio Batuetako Asanbladak izendatu zuen, ingurumenarekiko kontzientzia handitu eta ingurumenaren babeserako ekintza globala bultzatzeko asmoz.

Aurten, Europako Batzordeak aukeratutako leloa *Biodibertsitatea bizia da* izan da, Biodibertsitatea Lur planetan dagoen bizi barietate gisa hartzen delarik, horren barne ge-

neak, espezieak eta ekosistemak, hain zuzen. Biodibertsitatea mantentzea nahitaezkoa gertatzen da gure espeziearen biziraupenerako ere, horren baitan baitaude klima, ur eta aire hornikuntza, lur emankortasuna, janari eta botiken ekoizpena, e.a.

Baina zientzialari ugari dienez, biodibertsitatearen galerara oso larria da, klima aldaketarekin parekatzerainokoa. Hala ere, ez da saihestezina eta horregatik europar gobernuak 2010. urterako ekosistema eta habitat ezberdinak berreskuratzea adostu dute.

Ordiziako Udala aste honetan Biodibertsitatearen balo-

rea aldarrikatzen ari da, hitzaldien bitartez. Baina kontuan izan behar dugu Oiangurako onartu duen proiektua (golfa, *paint-ball*-a...) aldarrikatzen duenaren aurka doala, biodibertsitatea babestearen kontra, hain zuzen. Proiektu horrek Oianguko biodibertsitatean inpaktu larria eragingo du (basa, ur putzua, zelai... eta euren atxikita dagoen faunan). Era berean, herritarrok parkea erabiltzeko eta hartaz gozatzeko daukagun lurretan murrizketak eragingo ditu.

Oianguk, bere eremu txikia dela eta, Parke Naturalaren balioa ez badu ere, bere txikitasunean izugarriko aberastasu-

na du, bai ikuspegi sozial zein naturaren aldetik ere, eta horregatik aldarrikatzen dugu berau Babes Bereziko Natur Espaziotzat hartzea (Tokiko Agenda 21eko diagnostikoak dioen bezala) eta bertako golf, *paintball*, e.a. lotzen dituen proiektua gelditzea.

Kontuan hartu behar dugu natura guneetan herritarrok izaten ditugun jarrerak biodibertsitatearen babesean lagundu dezaketela, hala nola zakarrak ez botatzea, bertako fauna, landaredia, paisaia errespetatzea... Gure ustez, nahiz eta Oiangu aisigunea izan, bertan gozatzeko zein biodibertsitatea babestu eta ho-

betzea posible da, era berean ingurumen hezkuntzako jarduerak burutzen badira, honela herritarroi Oiangu ezagutu eta baloratzeo aukera eskainiz.

Horregatik guztiatik, biodibertsitatearen galera larriaz zein parke publikoetako pribatizazioaz kezkatuta dagoen edonor, ekainaren 9an, bihar, arratsaldeko 19:30ean Ordiziako plazatik irtengo den manifestazioa gonbidatzen dugu. Bertan Oianguko proiektua geldiaraztea eskatuko da (golfa, *paint ball*-a...).

EDURNE HUESA

(OIANGU BIZIRIK ETA PUBLIKO) ▶

ORDIZIA

## KULTURA ▶

Artea  
jolasa  
deneanAitor Ruiz de Eginoren eskulturak  
eta marrazkiak daude Barrenan

## MAIDER DEL OLMO

Sujertzea gustatzen zaio Aitor Ruiz de Eginori (Hernani, 1971). Artelanak irekia izan behar du bere ustez, interpretazio desberdinak onartzen dituena: «Lan baten aurrean hamar ikuslek hamar gauza desberdin esaten badituzte seinale ona da niretzat». Arteak jolas egiteko aukera ematen dio, gainera.

Artistaren lanak Barrena kultur etxean daude jarrita. Gehien-gehienak eskulturak dira, aluminiozkoak eta zeramikazkoak, eta tartean margoak ere badaude.

Erakusketan aluminiozko artelanei eman die protagonis-

moa. Metal horrekin oso gustura sentitzen dela azaldu du: «Aluminioak joko handia ematen du argiarekin. Burdinarekin ere lan egin izan dut, baina ez du hainbeste joko ematen eta pisutsuagoa da gainera».

Erakusketa «joko bat» dela dio. «Bizimnodu honetan jolasari garrantzia gutxi ematen diogu, hala ere», adierazi du.

Bizitza eta natura dira bere artelanen gai nagusia. Bizidunen arteko «nahasketak» irudikatzen ditu. Emakumearen figura ere asko erabiltzen du bere artelanetan.

Duela 11 urte hasi zen zeramika lantzen. Autodidakta izan da, batik bat. Enpresaritza ikasketak egin zituen, betida-



Aitor Ruiz de Egin. M. DEL OLMO

nik marraztea asko gustatu zaion arren: «Hasieran konplexu handia nuen, nonbaitera joan eta han denak Arte Ederreko ikasitakoak zirelako. Nire kabuz ekin behar izan nion ikasteari, liburuak irakurriz».

Geldirik egotea zaila egiten omen zaio. Mikelazulo taldeko kidea da eta, beste batzuen artean, irrati libre batean ere ibilitakoa. Artearen munduan orain ari da murgiltzen, hutsetik hasi ez bada ere, aurretik bere lanak ere ikusgai jarri baititu beste areto batzuetan. Ordiziako erakusketa hilaren 23ra arte dago zabalik.

## INGURUMENA ▶

Bisoi europarrak  
gaur hitzaldia  
dago Barrenan

Aste Berdearen barruan, gaur 19:00etan hitzaldia izango da Barrena kultur etxean. Hitzaldiaren gaia honakoa da: *Bisoi europarra, munduan desagertzeko arriskuan dagoen karniboroa Goierrin*. Hizlaria Iñaki Irizar biologoa izango da. Aste Berdea Goierriko udalek antolatuta dute, eta herritarrek ingurumenaren inguruan kontzientzia du helburu. Asmo horrekin hainbat ekintza prestatu dituzte igandera bitartean.

## GIZARTEA ▶

Ordiziarrek Gerak atxikimendua agertu  
dio Oiangu Bizirik-en manifestazioari

Ordiziarrek Gera talde politikoak bat egin du Oianguko egitasmoaren kontra biharko deituta dagoen manifestazioarekin. Plataformak Udalarri batzorde bat osa dezan eskatu dio, «herritarren parte-hartzea bermatzeko» eta auzi hau adostasunaren bidetik edo kontsultaren bidetik konpontzeko: «Ezkerreko talde politikoz bezala, inor baztertu gabe Oiangu guztiok modu publiko eta doakoan disfrutatuta behar dugula defenditzen dugu. Ingurumenaz arduratuta, Oiangu natur gunea babesten dugu». Bat egin dute Oiangu Publikoa eta Bizirik elkarteak deitu duen manifestazioarekin, eta herritarrei parte hartzeko deia egin diete.

## GIZARTEA ▶

Emakumeen  
osasunaz  
jardungo dute

Udaleko Ongizate Sailak antolatuta, gaur 17:30ean jubilatuen egoitzan hitzaldia emango dute, emakumearen osasunaren inguruan. Hizlaria Saioa Hernandez psikologoa eta berdintasunerako langilea izango da. Hitzaldian zaintzaren eginkizunak emakumeen osasunarekin eta bizitzan duen eragina aztertuko dute. Antolatzaileen arabera, «behar-beharrezkoa da gizarte zainketa arduratu eta mendekotasuneko arreta bereganatzea».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000  
etxetara

## ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 16 00 56  
goierri@goierrikohitza.info

HITZA guztiengan prezio beragatik